

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y  
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO  
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN  
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak UGPS parte-hartze publikoari irekiko dio datorren astelehenean, azaroak 19

*Lurralde-antolamenduaren eta gardentasunaren foru-araudi berria aplikatuko zaion udalaz gaineko lehen eragin-plana da*

Miércoles, 14 de noviembre de 2012

Nafarroako Gobernuak astelehenean, azaroak 19, [Udalaz Gaineko Eragina duen Plan Sektorialaren \(UGPS\) parte-hartze publikoaren prozesua](#) hasiko da Iruñean [Lanbide Heziketako campus publiko](#) bat sortzeko eta Nafarroako Unibertsitateko [hiru ikerketa-zentro](#) jartzeko.



Donapea institutuko automobilgintza-tailerra.

Hilabetez eta abenduaren 19a bitarte, asteazkena, interesa duten pertsonak campusaren kokapenerako hiru aukeren inguruko iradokizunak eta ekarpenak egin ditzakete: San Joséko lursaila, Lezkairuko lursaila eta campusa bi lursailetan banatzea: Donapea LHla Lezkairun eta Osasun Eskola, San José. Laugarren kokapen-proposamena bat planteatzeko aukera ere izango da.

Irizpenek kokapenari buruzko azken erabakia erraztuko dute eta Planaren zati izango den arrazoitutako txosten batean adierazita geratuko dira. Dokumentu hori urtarrilaren 9an argitaratuko da [www.participacioncamousFP.navarra.es](http://www.participacioncamousFP.navarra.es) webgunean eta [Sustapen Departamentu](#)ko webgunean 'LH Campuserakp Plan Sektoriala' sustapenerako banner-aren bidez, eta gune horiek parte hartzeko prozesua bideratuko dituzte.

Donapeako UGPS, mekanismo berri horretan jasoko duten lurralde-antolamendurako lehen tresna izango da [Lurraldearen Antolamenduaren eta Hirigintzaren Foru Legearen aldaketa](#) betearaziz hartutakoa -berriki Foru Parlamentuak onartu duena- eta [Gardentasunaren eta Gobernu Irekiaren Foru Legea](#)rena betearaziz. Izan ere, Nafarroako Gobernuak kasu horretarako azken arau horren aplikazioa aurreratu du, abenduaren 28ra arte indarrean sartuko ez dena.

Sustapeneko kontseilari Luis Zarraluqui-k foru-araudiak eskatutako "parte hartzeko eta sozializatzeko prozesu" berria jakitera eman du gaurko Gobernu bilkuran ekimen deklarazioaren onespena edo gaitzespenaren aurretik udalaz gaineko proiektu edo plan modura.

Gogora ekarri behar da, mekanismo hori Lurralde Antolamenduaren Batzordearen txostenari eransten zaiola (Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioeko kontsulta- eta koordinazio-organoa lurralde-antolamenduaren arloan, Estatuko, foruko, tokiko administrazioek, eraikitzaileek eta sustatzaileek, arkitektoen elkargoak eta Merkataritza Ganberako ordezkariak osatutakoa) eta jendaurreko nahiz entzunaldiko izapideari.

### **Nola parte hartu**

Parte hartzeko prozesua errazteko, Nafarroako Gobernuak aipatutako webguneetan eta Departamentuko bulegoetatik dokumentu bat zabalduko du, eta bertan Plan Sektorial horretako eduki teknikoak argi eta zehatz azalduko dira; proposatutako jarduketan udalaz gaineko izaeraren arrazoiak eta LHko Campusa kokatzeko aukerak zehaztuko dira, eta Planari bidea ematen dion hezkuntza-politika deskribatuko da.

Ekarpenak egiteko interesa duten pertsonak telematikoki, `on line´ Katalogoaren dagokion fitxaren bidez (NAN elektronikoa eta ziurtagiri digitala eskatzen dira), edo erregistro publikoetan aurkeztutako eskaeren bidez, Sustapen Departamentura zuzenduta, egin ahal izango dituzte.

Interesa duten pertsonak informazio gehiago webgunean jarriko den Zerbitzuaren Katalogoko fitxan aurkitu ahalko du, eta bertan bost informazio-fitxa ikusaraziko dira: aurkezpena (helburua, hartzailak, ezaugarriak eta aurkezteko epea); dokumentazioa eta izapidea (nahitaezko dokumentazioa, izapidetze presentziala, online izapidea eta aurreikusitako urratsak); emaitzak (azken txostena, ekarpenak aztertu ondoren); erreferentziazko araudia; eta zalantzak argitzeko, arazo teknologikoak... konpontzeko kontaktua.

Parte hartzeko prozesuaren helburua da bereziki kaltetutako eragileei eta gainerako interesdunei aukera ematea Plana egiteko izapideetan laguntzeko eta Udalaz Gaineko Eraginaren deklarazioa eman aurretik, erabakiak ahalik eta adostasun handienarekin hartzen laguntzeko asmoz; eta proposatutako udalaz gaineko izaerari buruzko hausnarketa kolektiboa erraztea, bai eta LHko Campusa kokatzeko aukera ezberdinei buruz ere, hezkuntzako, hirigintzako arrazoiak eta arrazoi ekonomikoak erreparatuz. Eragile eta gainerako interesdunei ere, hartutako erabakien berri izaten utziko zaie eta haiek oinarritzen diren arrazoi nahiz irizpideen berri izaten ere.

### **Kaltetutako eragileak**

Halaber, Nafarroako Gobernuak "eragile sozialen edo lurralde aldetik kaltetutako"-en iritzia jasoko du, araudiak eskatzen duenez. Horretarako, proiektuaren dokumentazioa postaz bidaliko da, haren iritzia eta ekarpenak

jasotzeko.

Eragile horiek dira, Nafarroako Gobernua beraz gain, hartuko den erabakiak kalte ditzakeen legezko eskubide edo interesak dituztenak: Donapea LHko gizarte-kontseilua; Osasuneko BHko eskola-kontseilua; Nafarroako Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa; LHko Nafarroako Kontseilua; Eskola Kontseilua; Ikerketa mediku aplikaturako fundazioa (FIMA); Vianako Printzea erakundea; Iruñea eta Barañaingo udalak; Iruñerriko Mankomunitatea; Nafarroako Enpresarioen Konfederazioa eta Merkataritza Ganbera.